


EMAKUMEAREN LAN EGOERA ZIFRATAN

Partzialtasun-tasa handiagoak

—
Lanaldi partziala duten pertsonen % 74,37 emakumezkoak dira. Bestalde, lanean ari diren emakume guztiei dagokienez, % 23,46k lanaldi partziala du.

Arrazoia? 30 eta 49 urte arteko emakumezkoen % 29,90ek, partzialtasunerako arrazoi gisa, zaintza-lanak eta familia mailako beste betebeharrak aipatzen dituzte.

Senideak zaintzeko eszedentziak:



- Emakumeak: % 47,93k sei hilabete baino gehiagoko aldirako eskatu zuen eszedentzia.
- Gizonak: % 86,93k sei hilabeteko edo gutxiagoko aldirako eskatu zuen eszedentzia.

Jarduera-tasa txikiagoa

Gizonezkoen jarduera-tasa % 63,30ekoa da, eta emakumeen kasuan, aldiz, % 35ekoa.

Arrazoia Enplegu bila ari ez diren 25 eta 49 urte arteko emakumeen % 53k familiako erantzukizunak aipatu dituzte. Aldiz, gizonezkoen kasuan, enplegua ez bilatzeko arrazoi nagusia gaixo edo lanerako desgaituta egotea da.

Enplegua-tasa txikiagoa

Gizonezkoen jarduera-tasa % 56,28koa da, eta emakumeen kasuan, aldiz, % 44,78koa.

Arrazoia? Gizonezkoen kasuan, enplegu-tasa handitu egiten da familiako erantzukizunak dituztenean. Emakumeen kasuan, aldiz, enplegu-tasa 4 puntutan gutxitzen da lehen seme-alabarekin, 6 puntu bigarrenarekin, eta 26 puntu hirugarrenarekin eta hurrengoekin.

Prestaciones por maternidad

